

Araua/ Instrukzioa

Xedea eta irismena EITB taldearen sozietateetako Lan-poltsetan aplikatzen diren merezimendu-, berdintasun- eta gaitasun-irizpideak ezartzea.

Jabea **Hautaketa**

Jarraipena

Bertsio-zkia.	Data eta Aldaketak
1	2002/01/29 1. instrukzioa
2	2003/05/13 Datu-basean baja emateko zioak eta DPBLOren izendapena.
3	2004/03/05 Prozedura kudeatzaileen planifikaziora egokitzea.
4	2005/06/08 Langileen ebaluazioaren aipamena.
5	2008/06/02 Instrukzioa antolakuntza-aldaketara moldatzea.
6	2010/06/16 Irratiko erredaktoreen Lan-poltsako lehentasun-irizpideak zehaztea.
7	2011/05/20 EITB taldeko kategoria ezberdinetako Lan-poltsetako lehentasun-irizpideak.
8	2011/07/18 Instrukzio berria, merezimendu-, berdintasun- eta gaitasun-printzipioak kontuan hartuta.

Deskribapena

1. Printzipio orokorrak

Bost baremazio-irizpideetan ezartzen den legez, lan-poltsako zerrenda barematuak prestatzeko irizpideak hiru aldagairen arabera izango dira:

- EEPetako (enplegu eskaintza publikoak) partaidetza, berrienak zaharrenei gailentzen zaizkielarik;
- horietan izandako puntuazioa; eta
- lanpostuan izandako esperientziagatiko merezimenduak, bai EITBko sozietateetan eta, behar bezala egiaztatuz gero, baita kanpoko enpresetan ere.

Kasu guztietan, lanposturako eskatzen den hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da.

2. Lan-poltsako baremazio-irizpideak lan-kategoriak:

Badago lehentasun ordena bat maila profesional eta sozietate bakoitzeko, eta ordena hori eratzeko hautagaien zerrenda barematua egiten da pertsonak honela ordenatuta: a) lehentasun-irizpidearen arabera, eta b) irizpide bakoitzaren barruan, lehentasun ordenari jarraiki, handienetik txikienera, esperientziak ematen dituen puntuazioaren (5. irizpidean izan ezik) eta merezimenduen arabera.

1. irizpidea

Kategoria jakin baterako deitutako azken EEPan parte hartu duten eta, plaza finkoa lortu ez duten arren, eskatzen zen gutxieneko puntuazioa gainditu duten pertsonak. Zerrenda barematua hautagaien azken antolamenduaren arabera izango da.

2. irizpidea

Lanpostu jakin baterako deitutako azken EEPan parte hartu eta lanpostua lortzeko eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez duten arren, proba bakoitzean hamar puntutik gutxienez bost lortu dituzten pertsonak. Toki jakin bat lortzen dute lan-poltsako zerrenda barematuan lortutako puntuazioaren eta EITBko sozietateetan zein, egiaztatuz gero, kanpoko enpresetan lanpostu horretan izandako esperientziagatiko merezimenduen arabera.

3. irizpidea

1. lehentasuneko irizpide berberak, baina aurreko EEPak kontuan hartuta, EEPrik berrienetako emaitzek zaharretakoei gailentzen zaizkielarik.

4. irizpidea

Lanpostu jakin baterako deitutako azken EEPan parte hartu duten baina proba bakoitzean hamarretik bost puntu lortu ez dituzten pertsonak. Toki jakin bat lortzen dute lan-poltsako zerrenda barematuan, lortutako puntuazioaren eta esperientziagatiko merezimenduen arabera.

5. irizpidea

EEPetan parte hartu ez duten arren, esperientziagatiko merezimenduak dituzten pertsonak EiTbko sozietateetan lan egin dutelako edo, egiaztatuz gero, kanpoko enpresetan lan egin dutelako. Euskara-maila egiaztatzeko proba kanporatzailea egin beharko dute eta, gaindituz gero, lehentasunezko tokia lortuko dute kasu honetan esperientziagatiko merezimenduen arabera finkatutako lan-poltsako zerrenda barematuaren azken talde honetan.

3. Kontratazio-sistema

O Paper **Lan Kontratazioa** aplikazioa sartu da lan-kategoria bakoitzari dagozkion zerrenda barematuetan, kudeatzaileari onartutako lehentasun-irizpideen arabera hautagaiak nola antolatuta dauden jakinarazteko.

Kontratua egiteko aukera dagoen aldi oro, ezinbestekoa izango da kontratazio-proposamena lan-kontraturik ez duen eta lehentasunik handiena duen hautagaiari luzatzea, ezarritako ordena errespetatuta.

Kasu berezietan lanposturako osagarriak diren gaitasunak garatu behar baditu kontratatuak, hau da, lanpostuari lotutako eta hautagai guztiek ez duten gaitasun batean aditua baldin bada, hautagaiaren fitxan agertu egin beharko da kualifikaizo hori 2003-2005 Hitzarmen Kolektiboaren "Lan-poltsa" ataleko 7. puntua aplikatuta. Horrelakorik gertatuz gero, idatziz jaso beharko da zergatik ez den ezarritako ordena errespetatu eta behar bezala justifikatu beharko da erabaki hori.

Indarrean dagoen legedia aplikagarrian ezarritako mugei dagokienez ere, gauza bera gertatuko da baldin eta legezko eskakizunen ondorioz ezinezkoa bada lehentasun-hurrenkeraren arabera aukeratu beharreko hautagaia kontratatzea. Hori gerta daiteke, adibidez, legeak eskakizun jakin batzuk ezartzen baditu kontratu mota jakin baterako, edo ezinezkoa bada aldi baterako langile bat langile finko bihurtzea bezalako mugak ez betetzearen ondorioz sortzen diren efektu ez desiragarriak norbere gain hartzea.

4. Sistemaren ezarpena

Oso konplexua denez irizpide horiek kategorია- eta sozietate-katalogo zabal batean garatzea, sistema apurka-apurka ezarriko da bi aldagai kontuan hartuta:

- EEPak amaitzean. Behin betiko zerrendak finkatutakoan, datu-baseak aldatuko dira gehienez 3 asteko epean, Lan-poltsetako zerrenda barematu berriak ezartzeko.
- EEP prozesu hau amaitzean. Prozesua amatu ondoren, hamabi hileko epean 5. irizpideari dagozkion zerrenda barematuak egiteari ekingo zaio, honako lehentasun-irizpideari jarraiki:
 - a) ETB: EEPetako zerrenda barematurik gabeko kategoriak; lehenengo postuan jarriko dira zerrenda barematurik ez dutenen artean garrantzitsuenak direnak edo, lau irizpideak aplikatuta, zerrenda barematu eskasegia dutenak.
 - b) EiTb taldeko sozietate guztien artean zerrenda barematurik ez duten gainerako kategoriak.

Etorkizunean zerrenda barematuak eguneratzeko orduan EiTb bere web orrian jakinarazi ahal izango ditu Lan-poltsetarako deialdi publikoak, merezimendu-, berdintasun- eta gaitasun-printzipioak aplikatuta.

5. Datu pertsonalen babesa

Lan-poltsako datu-baseak DPBLOren eskakizunak bete behar ditu.